

Antoine d'Abbadie eta garaikideen sare intelektuala

(Antoine d'Abbadie and intellectual networks at the end of the nineteenth century)

Hernández Mata, Amelia*

Eusko Ikaskuntza

María Díaz de Haro, 11 - 1

48013 Bilbo

* Eusko Ikaskuntza

Antoine d'Abbadiek oso eginkizun garrantzitsua bete zuen euskal kulturaren XIX. mendearen amaieran, Ipar zein Hegoaldeko euskal zaleak harremanetan ere jarriz. Horrela, Antoine d'Abbadiek Inchauspe, Duvoisin, José Antonio Uriarte, Echenique, Salaberry eta Claudio Otaegurekin Bonaparteren lan taldea osatu zuen. Julien Vinson, Charencey eta Arturo Campionen teoriatik, ostera, urruti samar zegoen Bonaparte printzea. Alde eta kontraktasun hauek batzarrak, elkarrizketak, kritikak, eskutitz trukaketa eta abarretan gauzatu ziren; guzti hori aztertzeak Antoine d'Abbadieren garaiko sare intelektuala ezagutzeko bidea emango digu.

Giltz-Hitzak: Euskaltasuna. Kultura. Sareak.

Antoine d'Abbadie ejerció un papel muy importante en el impulso de la cultura vasca a finales del siglo XIX, así como en el fomento de la relación entre los intelectuales del norte y del sur de Euskal Herria. Así, formó un grupo de trabajo que colaboró con Luis Luciano Bonaparte con Inchauspe, Duvoisin, José Antonio Uriarte, Echenique, Salaberry y Claudio Otaegui. Sin embargo, el príncipe Bonaparte se mantenía alejado de las teorías gramaticales de Julien Vinson, Charencey y Arturo Campion. Estas relaciones de colaboración o de enemistad dieron lugar a una serie de reuniones, conversaciones, críticas, intercambio de cartas, etc., el estudio de todo lo cual nos ha permitido conocer un poco mejor la red intelectual de la época de Antoine d'Abbadie.

Palabras Clave: Vasquismo. Cultura. Redes.

Le travail d'Antoine d'Abbadie fut très important dans la culture basque du XIXème siècle; il mit aussi en relation les intellectuels du nord et du sud du Pays Basque. Il forma le groupe qui collabora avec Louis Lucien Bonaparte: Inchauspe, Duvoisin, José Antonio Uriarte, Echenique, Salaberry et Claudio Otaegui. Par contre, le prince Bonaparte était loin des théories grammaticales de Julien Vinson, Charencey et Arturo Campion. Ces relations d'amitié ou d'hostilité produisirent des réunions, discussions, critiques, lettres, etc., et c'est en étudiant tout ça que nous avons pu connaître en peu mieux le réseau intellectuel de l'époque d'Antoine d'Abbadie.

Mots Clés: Basquisme. Culture. Réseaux.

Antoine d'Abbadie Dublinoan jaio zen 1810ean. Bi anai zuen: Jean Charles eta Arnauld eta hiru arreba: Elisa, Céline eta Julienne. Heuren aitak, Michel D'Abbadie, Irlandara joan behar izan zuen errefuxiatu Frantziako iraultza garaian eta ez zen Frantziara bueltatu 1820 arte, Toulousean, 1928an Parisera bizitzen joan ziren arte.

D'Abbadie aita euskalzalea zen eta seme alabengan zaletasun hori sustatzen saiatu zen, baita ingurukoengan ere. 1929an Pierre Darrigolen *Disseration Critique et Apologétique de la langue Basque* irakurri zuenean Académie Françaisek eraturako Volney sariara aurkeztuta adoretu zuen Darrigol. Saria irabazi zuen, 1200 liberatakoa; Michel d'Abbadieren bidez jaso zuen, gaixorik baitzegoen. Lehiaketara aurkeztu ziren ere Garay de Monglave¹ eta Lécluse jaunak.

Aipatu Lécluse ezaguna zen jadanik Michel D'Abbadierentzat. Honek lagundu zion ikasketetan eta dirua eman zion idazten zuena argitaratzeko. Léclusek *Manuel de la langue basque* kaleratu zuenean Darrigol abadeari eskeini zion lehenengo partea, gramatikari buruzkoa, eta bigarrena, hiztegiarena, Michel D'Abbadieri. Eskuliburu honetan Léclusek Michel d'Abbadieren aholkuak jarraitu zituen, Antoine d'Abbadiek dinoskuen bezala: "M. Lécluse a le premier établi, d'après les conseils de mon père, l'existence d'un dialecte particulier dans l'ancienne province de Soule (Ziberoa)"². Antoinerentzat ere ezaguna zen Lécluse, literatura grekerazko irakaslea baitzen³ Toulouseko ikastegian.

Bestetik, Garay de Monglavek Euskal Herriko historia idazteko asmoa zuen: "MM. de Monglave et de Labadie se proposent d'écrire en collaboration une histoire du Pays basque. D'après ce que l'un de ses Messieurs m'a écrit, votre ouvrage et le leur auront plus d'un rapport; mais l'un doit attendre sa retraite, l'autre, la délivrance d'engagements contractés. Deux années doivent d'écouler ainsi et qui sait s'ils ne rencontreront pas encore quelque obstacle au bout de ces deux années. Je ne puis donc que vous engager à continuer votre travail"⁴.

Zuzenbidea eta Zientziak ikasi ondoren, bidaiak egiteari ekin zion Antoine d'Abbadiek, Ingalaterra eta Irlandara, 1835an, eta Brasil, Etiopia eta Egiptora, 1837an, Arnault anaiarekin. 1849an Frantziara bueltatu zen betiko, Abbadie izeneko jauregira, Hendaiatik hurbil. 1867an Académie de Scienceseko kidea izendatu zuten eta 1892tik 1897 arte bertako lehendakaria izan zen.

EUSKAL JAIK

Antoine d'Abbadiek euskeraren erabilera bultzatzearren Euskal Jaiak antolatzeari ekin zion. 1851ko irailaren 9an pelota partidu baten babestzailea izan ostean, Urruñan, 1853ko irailaren 6an lehenengo euskal jai antolatu zuen, Urruñan ere; epaimahaia osatuko zutenak: Dassance, Harriet, Lissardy, Goyhetche, Ducos, Lerenboure eta d'Abbadie, baina jai egu-

1. 1834an Garay de Monglavek, Institut Historiqueko idazkaria, Altabiskarreko kantua konposatu zuen.

2. D'Abbadie, A. Th. eta Chaho, A.: *Etudes grammaticales sur la langue euskarienne*, Paris, 1836, 37. or.

3. "Une heure sonne, je vais peut-être au cours de M. Lécluse; mais plus souvent je vais, en lisant le *Voyage d'Anacharsis*, attendre la classe du soir, classe de dégoûts, classe de Philosophie; depuis deux heures et demie jusqu'à quatre heures et demis, je dévore l'enui des syllogismes", Darboux, G.: *Notice historique sur Antoine d'Abbadie*, 1907

4. Francisque-Michelek Duvoisini bidalitako eskutitza Burdeosetik 1855ko abustuaren 1ean, Dubarat, V.: "Lettres adressées au capitaine Duvoisin", *RIEV*, 1907, 421-423 orr.

nean Larralde, Diustéguy eta Hiribarren izan ziren epaileak. Lehenengo saria Bardoseko Celhaberentzat izan zen. Etchahun partaideetarik bat izan zen eta ez irabaztean, satira bat eskeini zion epaimahaiari.

1954, Urruña: Lehenengo et bigarren saria Bardozeko Dussautentzat; kanpoan geratu ziren Urruñako Arrupe, Bastidako Borda eta Bardozeko Celhabe. 1955, Urruña: Lehenengo saria Jean Baptiste Elissambururentzat; aurkeztu ziren ere: Urruñako Martín Arrupe eta Ziburuko Arnaud Haramboure. 1956, Urruñan: Larralde doktoreak eskuratu zuen lehenengo saria Bonaparte printzearen eskuetatik. 1857, Urruña: Louis Ithurbidek irabazi zuen lehenengo saria. 1858, Urruña: Elissamburuk, Jean Hiriartek eta M. Baluyanek irabazi zituzten sariak; ohorezko aipamenak egon ziren Gazteluberry, Elissamburu, Larralde, Pierre Haraneder, Arnaud Haramboure eta Etcheberryrentzat; parte hartu zuen ere Goyetche abateak. 1859, Urruña: Lehengo saria Larralderentzat, bigarrena G. Haroztegyrentzat, hirugarrena Marin Gilbeaurentzat eta laugarrena M. P. Mendibilentzat; ohorezko aipamena Oxalderentzat. 1860, Urruñan: Duvoisin kapitainak sarituen berri eman zuen *Le Courier* egunkarian: Lehenengo saria Harlouchirentzat, bigarrena Ainhoa Elizalderentzat, ohorezko aipamena Léon Elissambururentzat; aurkeztu ziren ere Larralde eta Elissamburu. 1861, Urruña: Ez zen sarizaturik egon. 1862, Urruña: "En este concurso sucedió una anomalía. Se habían anunciado tres premios que, luego, se redujeron a uno y, con tal atraso, que se hizo difícil para el jurado explicar lo sucedido"⁵. J. B. Elissambururentzat izan zen lehenengo saria; ohorezko aipamena Lapitz, Garro eta Duhalderentzat; aurkeztu zen ere Larralde. 1963, Urruña: Lehenengo saria Betiri Olhondorentzat eta bigarrena Larralderentzat. 1964, Sara: Lehenengo saria Larralderentzat, bigarrena A. Salaberryrentzat. 1865, Sara: Lehenengo saria Sarako Joanes Berjesentzat, ohorezko aipamena Larralderentzat. 1866, Sara: Lehenengo saria J. B. Elissambururentzat. 1867, Sara: Lehenengo saria Joanes Bergesentzat. 1868, Sara: Lehenengo saria J. Oxalderentzat; aurkeztu zen ere Augustin Etcheverry. 1869, Sara: Aurreko urteetan bezala d'Abbadiek 830 libera bidali zion Sarako alkateari saritan banatzeko; Ustaritzeko Laborde-Noguezek, bere aldetik, makila bat eman zuen lehenengo saria jaso zuenarentzat. Bertsolariek binaka ari ziren harte hartzen d'Abbadiek gaia ezartzen zitzaizen neurrian; poesiatan Sarako Agoustin Etcheverryk jaso zuen lehenengo saria; ohorezko aipamena Darricarrèrarentzat. 1870: "En 1870, il n'y a naturellement rien eu"⁶, gerra zela eta. 1871, Sara: Lehenengo saria Donibane Lohitzuneko J. B. Elissambururentzat; bertsolarien artean Jatxuko Pierre Ibarrartek eta Sarako Etchettok jaso zuten lehenengo saria. 1872, Sara: Sarako Etchetto eta Ezpeletako Etchart bertsolariek jaso zuten lehenengo saria. 1873, Sara: Urte honetatik aurrera prosaz egindako lanak saritu zituzten, 8 orrialdetakoa gehienez; poesiak 50 bertsotakoak izan ahal ziren gehienez; beti bezala, lanak *Le Courier de Bayonna* bialki behar zuten. D'Oxandabaraten ustez poesiak gero eta maila beharakoak ziren; lehenengo eta bigarren poesia sariak Hergarayarentzat izan ziren. 1874, Sara: Guilbeauren ikuspuntik jai hauek Errepublikaren kontra agertuz joaten ziren, Guilbeau –Donibane Lohitzuneko alkate errepublikar ohia– eta beste errepublikazale batzuk, J. Vinson horien artean, Association Basque de Jeux Floraux osatu zuten eta ospakizunak egin zituzten Ustaritzen (1893), Hasparden (1894), Espeletten (1895), Cambon (1896) eta Saran (1897). Vinsonek ere eritzi ezkorrak zituen d'Abbadieren ospakizunetaz, konposizioen arlo linguistiko eta gramatikoari buruz hasiera baten, eta politika alorrean geroago, zeren eta 1874an bizkaitar batek 'Jaungoicoa eta Erriya' poesia aurkeztu zuen, karlisten alde, eta lehenengo saria irabazi zuen; aipatu poesiak adorea ematen zien karlistei foruak defendatzeko Madrilako gobernu

5. *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco, Literatura I*, Auñamendi, 1977, 430 or.

6. Op. cit., 448 or.

liberalaren aurrean, errepublikazale frantsiarrentzat onartuezinezkoa zena. 1875, Sara: Urte honetako jaiak eta lehiaketak arrakasta handia izan zuten Vinsonen ikuspuntitik. D'Abbadiek ezin izan zuten bertan egon. Ustaritzeko Laborde-Noguezek zilarrezaturiko makila bat eman zuten sari bezala. 1876, Sara: '¡Viva República!' zen poesiarik onena, baina Errepublikaren satira zen; epaimahaiak ez zekien sariztatu ala ez; antolatzaileek erabaki zuten urte horretan saririk ez ematea. 1877, Donapaleu: Lehenengo saria Urruñako J. B. Elissamburuzentzat. 1878, Sara: Inork ez zuten lehenengo saria jaso, bigarrena Bidarraiko Joanes Oxalderentzat izan zen; Dibarrartek ere poesia bat aurkeztu zuen. 1879, Elizondo: Han egon ziren: d'Abbadie, Duvoisin, Manterola, Adán de Yarza, Bruno Echenique y Dámaso Zabala. Lehenengo saria Otxandianoko Felipe Arrese Beitiarentzat, bigarrena eta makila Donostiako Ramón Artolarentzat, ohorezko aipamena J. M. de Iparraguirrentzat, Claudio Otaegui sari bat eman zioten irakasle onena izateagaitik. 1879, Donostia: Bonaparte printzea eta d'Abbadie gonbitatu bezala egon ziren; antolatzaileak: José Manterola, José Olano, udalaren ordezkatzaille bezala, José S. Irastorza, Manuel Antonio Antia Urnieta parrokoa, Claudio Otaegui, Hondarribiako irakaslea, eta Ramón Artola. 1880, Begoña: Mahaiburutzaren ondoan egon ziren: Prudencio Aguirre arartzapeza, Alvaro Robledo, Lorenzo de Arailza legegizona, Estanislao J. de Labairu presbiteroa; sari bat eman zioten J. Ignacio de Aranak konposatutako kantuari. 1880, Bera: Epaimahaia: Lehendakaria Damaso Legaz, mahaikideak Felix Gaztañaga eta Salvador Echaide, idazkaria Arturo Campion; ohorezko saria eman zioten Felipe Arrese Beitiari; Esteban Iraioz ere egon zen Berako Asociación Euskararen ordekar bezala. San Sebastian: Lehenengo saria Felipe Arrese Beitiarentzat, horezko aipamena Guilbearentzat. 1880, Maule: Lehenengo saria Felipe Arrese Beitiarentzat, bigarrena Joanes Oxalderentzat, ohorezko aipamenak Sarako Agustin Etcheverry, Donostiako Ramón Artola eta Urruñako Darrouperentzat. 1881, Donibane Lohitzune: Epaimahaia: Guilbeau alkatea, Elissamburu eta Euskal-Erria hamabostekariaren zuzendaria. 1881, Irun: Asociación Euskara de Navarra eta Antoine d'Abbadieren laguntzarekin. Epaimahaia: Alfonso M^a de Zabala, Arturo Campion eta José Manterola. Claudio Otaegui, Asociación Euskara de Navarrakoa, urrezko domina irabazi zuen, Antonio de Arzacek zilarrezko domina, Felipe Arrese Beitiak eta Ramón Artolak ohorezko aipamenak. 1881, Donostia: Epaimahaia: José M^a Begiristain, José Zapirain, José Bernardo Otaño, José M^a Beitia eta José Manterola. Diputazioak emandako saria Arturo Campionentzat izan zen, ohorezko aipamenak Gregorio Arrue, Joaquin Larreta, Arzac eta Ramón Artolarentzat, ohorezko saria Felipe Arrese Beitiarentzat. 1882, Sara: Sariak Piarres Ibarrart eta Larrondoberrientzat. 1882, Iruña: Epaimahaia: Gastelu, Landa, Ascunce, Campion eta Echenique. Arturo Campionek irabazitako saria Euskal-Erria elkarteari eskaini zion; akzesit Claudio Otaeguiarentzat. 1882, Bilbao: Euskal-Erria elkarteak antolaturik; lehendakaritza Euskal-Erria elkartearen lehendakaria zen Fidel de Sagarmínaga, Aureliano Galarza eta Arturo Campión. Urrezko domina Claudio Otaegui eta Felipe Arrese Beitiarentzat, ohorezko aipamena Ramon Artolarentzat. 1882, Oiartzun: Sariak A. de Antia eta Olirentzat. 1882, Donostia: Zilarrezko erramua Gregorio de Arruerentzat, ohorezko aipamena Carmelo de Echegarayentzat, nikelezko eskribautza Claudio Otaeguiarentzat, akzesit Ramon Artolarentzat, zilarrezko kikara Serafín Barojarentzat. 1883, Iruña: Gregorio de Pano zen epaimahaiaren lehendakaria; urrezko luma J. de Olirizentzat eta Carmelo de Echegarayentzat, urrezko pentsamendua Felipe de Arrese Beitiarentzat, akzesit Claudio de Otaeguiarentzat. 1883, Markina: Antoine d'Abbadiek Vicente de Aranari eskatu zion Lore Jokoak antolatzeko. Makila Carmelo Echegarayentzat izan zen, urrezko arrosa Arrese Beitiarentzat; sari bat egoan zen Claudio Otaeguiarentzat aurkeztutako Mazarredo biografiarengaitik. 1883, Hondarribia: Asociación Euskara de Navarra, Sociedad Euskalerra de Bilbao eta Hondarribiako udalak antolatu zuten. Epaimahaia José Iriarte, Iturralde y Suite, Teóforo Cortés eta Arturo Campionek osatu zuten. Urrezko domina Antonio Arzacentzat, zidarrezko domina Felipe Arrese Beitia eta Claudio Otaeguiarentzat; Fermin de Sagarmínaga eta Arturo

Campiónek eman zituzten sariak. 1883, Donostia: Lehendakaria José Irastorza eta idazkaria Manuel Gorostidi izan ziren. Lehenengo saria Carmelo Echegarayrentzat, zidarrezko koroa Arturo Campiónentzat, akzesit Carmelo de Echegaray eta José Manterolarentzat, ohorezko aipamena Antonio Arzac, Victoriano Iraola eta Claudio Otaeguiarentzat. 1884, Sara: Piarres Ibarrarentzako saria. 1884, Iruña: Carmelo de Echegarayrentzako saria. 1884, Donostia: Sariak Carmelo de Echegaray, Victoriano Iraola eta Ramón Artolarentzat, akzesit Gregorio de Arruerentzat, ohorezko aipamena Arrese Beitia eta Claudio Otaeguiarentzat. 1885, Sara: Aipamena Agustín Etcheverryrentzat. 1885, Iruña: Felipe Arrese Beitiak irabazi zuen saria, akzesit Carmelo de Echegarayrentzat. 1885, Donostia: Victoriano Iraolak eta Ramón Artolak irabazi zuten saria; ohorezko aipamena Arrese Beitiarentzat. 1886, Aranzazu: Sariak Felipe Arrese Beitia, Carmelo de Echegaray eta Gregorio de Arruerentzat. 1886, Durango: Jose Ignacio de Aranak eta Felipe Arrese Beitiak irabazi zuten lehenengo saria, Ramón Artolak bigarrena, Arrese Beitiak hirugarrena eta Arturo Campionek laugarrena; akzesit Victoriano Iraolarentzat. Saria egon zen ere Euskal Hizkuntza eta Historia proiekturik onenerako, hau da, Aristides de Artiñanorentzako; saritua izan zen ere Artiñanok aurkeztutako euskal jaiak antolatzeko proiektuagaitik. 1886, Donostia: Sari bat Claudio Otaeguiarentzat; ohorezko aipamena Ignacio Arrue, Ramón Artola eta Agustín Etcheberryrentzat. 1886, Urnieta: D'Abbadiek antolaturik, Urnietara joan zen emaztearekin, Duvoisin eta *Euskalerr*aren zuzendaria zen Arzacekin; Carmelo Echegaray izan zen saritua. 1887, Donostia: Carmelo de Echegarayk irabazi zuen saria, akzesit José Artolarentzat. 1887, Askain: D'Abbadiek antolatuta. Lehenengo saria José Artolarentzat izan zen; ohorezko aipamena Senpereko Zaldubi eta Harispiderentzat. 1887, Gernika: Vicente de Aranak antolaturik eta Diego de Anitua lehendakartzan. Saria Felipe de Arrese Beitiarentzat izan zen; Miguel de Unamunok kantatu zuen saritutako lana. 1888 Kanbo: Baionako Lavigerie kardinala egon zen. Ez zen saririk egon; Ibarret, López Alén Diharassarry, Carmelo Echegaray eta Gregorio Irigoyenek hartu zuten parte. 1888, Gasteiz: Urrezko orratza Victoriano Iraolarentzat, ohorezko aipamena Francisco López Alén eta Felipe Arrese Beitiarentzat. 1888, Donostia: Saria Toribio Alzagarentzat, ohorezko aipamena Francisco López Alén, Victoriano Iraola, Agustín Etcheberry eta José Artolarentzat, akzesit Claudio Otaeguiarentzat. 1889, Donostia: Saria Francisco López Alén eta Marcelino Soroarentzat, akzesit Toribio Alzagarentzat, ohorezko aipamena José Artolarentzat; Asociación Euskara de Navarrak emandako saria Carmelo de Echegarayk irabazi zuen. 1889, Santesteban: Lanak Baionara bidali behar ziren, d'Abbadiek antolatuta baitzegoen; ohorezko aipamena Ramón Artolarentzat. 1890, Donostia: Sariak Francisco López Alén, Juan Ignacio Uranga eta Domingo Aguirrerentzat izan ziren; akzesit Carmelo de Echegarayrentzat. 1890, Mauleon: Lanak Baionara bidali behar ziren; saria Felipe Casalek irabazi zuen. 1891, Donostia: Sariak Carmelo Echegaray eta Toribio Alzagarentzat; akzesit Domingo Aguirrerentzat. 1891, Iurreta: D'Abbadiek eta Iurretako udalak antolatuta; d'Abbadie eta emaztea egon ziren. Sariak Francisco López Alén, Felipe Arrese Beitia eta Ramos Azcáratearentzat. 1892, Donostia: Sariak José Ansuarenarentzat, akzesit José Zapirain eta José Artolarentzat, ohorezko aipamena Pedro M^a Otañorentzat. 1892, Donibane Lohitzune: Goyenetze alkatea egon zen. Lehenengo saria Victoriano Iraolak jaso zuen eta bigarrena Piere Dibarrartek. Goyenetze eta Antonio Arzacek hitzaldiak bota zuten. 1893, Ustaritz: Lehenengo saria Pierre Dibarrarentzat, bigarrena Bonifacio Echegarayrentzat. 1893, Azpeitia: D'Abbadiek antolatuta. Lehenengo saria Francisco López Alénentzat eta bigarrena Zaldubarentzat. 1894, Hasparren: Lehenengo saria Iraolarentzat, bigarrena López Alén, hirugarrena López Alén, Casal Otaegui, Dibarrart eta Oxalderentzat. 1894, Donibane Garazi: Lehenengo saria Ozezeko Diharassarry eta Irisarriko Daguerrarentzat izan ziren; bigarrena Joanes Oxalderentzat. 1894, Donibane Lohitzune: Ohorezko aipamena Bonifacio de Echegaray, Piere Dibarrart eta Oxalderentzat. 1894, Donostia: Sariak Domingo de Aguirre, Pedro M^a de Otaño, Miguel Antonio de Iñarra, Juan Ignacio de Uranga eta Bonifacio

Echegarayrentzat. 1895, Bera: Ez zen saririk egon. 1895, Espeleta: D'Abbadiek eta Association Basquek antolatuta. Arriague deputatuak, Julien Vinson eta Guilbeauk hitzaldiak bota zuten. Sariak López Alén eta Pierre Dibarrartek irabazi zuten; ohorezko aipamena Bonifacio de Echegarayrentzat. 1896, Arrasate: Antonio Arzacek hitzaldia bota zuen euskeraz. Sariak Pedro M^a Otaño, Felipe Arrese Beitia, Francisco López Alén, Domingo Aguirre eta José Artolarentzat. 1896, Kanbo: Guilbeau lehendakaritzan. Association Basquek eman zuen emaitza: Saria P. Ibarrarentzat. 1896, Mauleon: Lehenengo saria Diharassarryrentzat, bigarrena Felipe Arresebeitiarentzat, hirugarrena Francisco López Alénentzat. 1897, Areatza: d'Abbadieren alargunaren ardurapean, jarraitu nahi baitzuen senarraren ekintzekin. Lehenengo saria Francisco López Alénentzat, bigarrena Juan Ignacio de Urangarentzat, hirugarrena Victoriano Iraolarentzat. 1897, Sara: Lehenengo saria Jean Barbierentzat. 1897, Oiartzun: Sariak Pedro María Otaño, Francisco López Alén eta Victoriano Iraolarentzat. 1897, Donibane Lohitzune: Goyenetchek antolatuta, 1892an eta 1894an bezala, Antoine d'Abbadieren omenez. Jauffret Baionako apezpikua lehendakaritzan. Bertan egon ziren Donibane Lohitzuneko alkatea zen Goyehetche doktorea, Société d'Ethnographiek idazkaria zen G. Boucher, Henri de Larralde, Diustéguy Urruñako alkatea, Diharce bikario orokorra, Elissage apeza, Dubarat Pabeko Lizeoko kapelaua, Charles Petit, Charles Bordes, Léon Bonnat, Donibane Zaharreko Etcheberry, Salaberry deputatu izandakoa, Société Béarnaise et Basquaiseko lehendakaria zen Ducourau, Baionako Darricarrère kapitaina, Pochelu, *Eskualdunaren* gerentea. Hitzaldiak bota zuten: Louis Etcheverry, Carmelo Echegaray, Antonio Arzac, Wentworth Webster, Sallaberry, Haristoy, Charles Bordes, Arturo Campion, Larriue eta Charles Petitek.

Antoine d'Abbadie hil zenean, 1897an, Arbelbide, Campion, Daranatz, Darricarrère, Azkue eta Broussain Euskal Jaietako d'Abbadieren ordezkatzailak izendatu zituen Aita Verschaffelek, Académie de Sciences-en mandataria zena⁷. 1901ko eskutitz baten Broussainek Azkueri adore ematen zion jaietara joateko: "Savez-vous que les fêtes basques de feu M. Abbadie (elles doivent continuer après la mort de sa veuve) aurait lieu à Hendaye dimanche prochain 14 juillet? / Vous deviez vous arranger pour finir votre besogne à S. Sébastien pour cette date et pour arriver à Hendaye le 13 au soir ou le 14 au matin. J'irai vous retrouver à Hendaye le 13 et après les fêtes nous rentrerons ensemble à Hasparren, puis nous organiserons notre excursion à Baigorry, Tardets, St. Engrace et la vallée de Roncal"⁸. Baina Azkuek uko egin zion agindu honi, bere ustez orduko jaiak Pirineo bi aldeetako banaketa indartzen zuelako, d'Abbadiek batasunaren alde egonez. Hala ere, Broussain parte hartzen jarraitu zuen Minjonnet, Lacombe, de Saint-Jayme eta Nicolas d'Arcanguesekin batera, 1914an gerra piztu zen arte. Izan ere, Pierre Broussainek Guilbeauk eraturako Association Basque-n zein Goyenechek, Guilbeauren etsaia politikoki, antolatutako Euskal Jaietan parte hartu zuen.

7. "J'ai l'honneur de vous informer qu'en qualité de représentant de l'Académie des Sciences pour le domaine d'Abbadie (Hedaye), je viens de constituer je jury appelé à décerner les prix des *Fêtes basques* de 1902 qui auront lieu les 8 et 9 Septembre prochain à Urrugne./ Voici, par ordre alphabétique, la composition de ce jury: M. M. Arbelbide (chanoine), Broussain (docteur), Campion Arturo (docteur), Daranatz (abbé), Darricarrère (capitaine), Guilbeau (docteur)./ Je vous serais reconnaissant de vouloir m'adresser, avec votre acceptation, le nom de celui que vous choisirez comme Président parmi ces Messieurs", Verschaffelek bidalitako eskutitza, Hendaia, 1902ko abuztuaren 9an, "Del epistolario de R. M. de Azkue", *Euskera*, 1957.

8. Hasparne, 1901ko uztailearen 7an, op. cit., 348. or.

ANTOINE D'ABBADIE ETA LOUIS LUCIANO BONAPARTE

Antoine d'Abbadiek Louis Luciano Bonaparte⁹ ezagutu zuen Londresera egindako bidairen baten¹⁰ eta bere languntzaile bihurtu zen. D'Abbadie izan zen Bonaparte printzea sarrarazi zuena Euskal Herrian. Louis Lucianok 1856ko eskutitz batez Euskal Herrira etorriko zelaren berri eman zion Antoine d'Abbadieri eta honen bidez espero zuen Bonapartek euskaldunak ezagutzea mapa linguistikoa osatzeko eta Biblia hizkera guztietara itzultzea euskalkien konparaketa egiteko: "sólo busco quien me sea útil para la lengua vasca de Guipúzcoa. A v., pues, mi querido M. d'Abbadie, me dirijo, con la esperanza de que ha de comprender perfectamente lo que deseo, y que sabrá perdonar a un vascófilo el trabajo que le voy a causar... Si los baños de mar no me fueran indispensables, preferiría establecer mi cuartel en Tolosa, por el P. Udabe, aunque también tiene un atractivo para mi la patria de Larramendi. Pero temo que en San Sebastián no se hable mucho el vasco. Uno de los principales fines de este viaje son los libros vascos, sobre todo los de los dialectos bizcaíno, altonabarro y alavés. Ya hablaremos sobre la ortografía que se ha de adoptar para las traducciones vascas"¹¹.

D'Abbadiek eskutitza jasotzean erantzuna bidali zion Bonaparteri: "Al día de llegar su carta aquí, M. Duvoisin me escribió desde San Juan de Luz que se esperaba la llegada de V. A. al país, y hubiese pensado en una indiscreción del correo si no hubiese encontrado intacto el sello"¹².

1856ko uztailaren 19an Louis Luciano Bonaparte Baionara heldu zenean d'Abbadie, Inchauspe eta Duvoisin zituen zain. Donostian aste bat eman ondoren¹³, Donibane Lohitzunera joan zen Dasconaguerrek zuen ostalari batera, eta lanean hasi zen. Herralde

9. Louis Luciano Bonaparte Napoleon I.aren iloba zen. 1852an, Estatu kolpearen ondorioz, Inperioak poterea berrezkuratu zuen Napoleon III.aren errentan. Louis Lucianok, Napoleon III.aren lehengusua izatean, Printze titulua jaso zuen eta 130.000 liberatako errenta. Bigarren Inperioa erorita, Eugenia enperatrizarak dirulaguntza ematen jarraitu zuen Louis Lucianorentzat ("je suis faible et trop pauvre, depuis la chute de l'Empire, pour pouvoir faire imprimer mes recherches sur l'accent labourdin", Bonapartek Schuchardt idatzitako eskutitza, Londres, 1887ko uztailaren 4an, Schuchardt, H.: "Briefe des prinzen L. L. Bonaparte", *RIEV*, 1909, 139 or.). 1883an Gladstoneko gobernuaren 250 liberatako errenta ematen ziona hilerio, Ingalaterrako patois eta dialektoei buruz burututako lanengaitik. 1891ean Clementina Richard Grandmontagnerekin ezkondu zen. Clementina Tarbesekoa zen eta euskera zekien, Araia, Zegama eta Hondarribian bizi baitzen bere aizparekin, Claudio Otaeguiaren emaztea zena.

10. "La presencia en Londres de ese infatigable viajero (Antoine d'Abbadie) en el invierno de 1855-56, debió de ser la ocasión del encuentro de esos dos hombres. - Ya a la edad de 16 años, según copia de una carta suya dirigida a Azpiazu, Abbadie había sido el instigador de su profesor de griego en Toulouse hacia la vascolología. Esta vez había de ser Bonaparte el blanco de su ímpetu vascófilo", Vilallonga, J.: "Introducción a un estudio sobre Louis-Luciano Bonaparte y sus trabajos", *Eusko Jakintza*, 1953-1957, 52 or.

11. Bonaparte printzeak Antoine d'Abbadieri idatzitako eskutitza, 1856ko apirilaren 25ean, Vilallonga, J.: "Introducción a un estudio sobre Louis-Luciano Bonaparte y sus trabajos", *Eusko Jakintza*, 1953-1957, 53 or.

12. D'Abbadiek Bonaparte printzeari idatzitako eskutitza, 1856ko maiatzaren 29an, op. cit.

13. "en periódicos de Madrid, y también en algunos de sus correligionarios en el País Vasco, se había empezado a formar una atmósfera de sospechas y de habladurías extravagantes, a propósito de la llegada de Bonaparte a S. Sebastián. Se pretendía relacionar esta visita con ciertas manifestaciones, insignificantes o importantes, sin trascendencia o intencionadas, que se notaban del lado de Bizcaya, en conexión con el nacimiento del Príncipe Imperial. Podría contarse entre las primeras algún gesto de incitativa particular, como la botadura de una goleta construida en los Astilleros Uresandi, en Bilbao, a la que se había dado el nombre, muy popular entonces por toda Europa, de 'Príncipe Imperial'... Decide entonces, mientras se encuentra una solución a semejante complicación política, esperar en San Juan de Luz", op. cit., 55. or.

desterdinetako hizlariei bidali zien deia, Duvoisin eta Inchauspe horien artean, Donibane Lohitzunera etor zitezzen. D'Abbadiek Bonaparterentzat aurkitutako lankideetariko bat zen Emmanuel Inchauspe. 1856ko martxoaren 4an idatzitako eskutitzan horren aurkezpena egin zion Bonaparteri: "Le P. Inchauspe, éditeur du '*Uscaldunaren laguna*', m'a promis de traduire cet évangile en Souletin, et de l'avoir achevé en 2 ou 3 mois. Le prêtre Souletin ne veut pas entendre parler de prix, mais il demande un exemplaire imprimé de son ouvrage, car il ramasse comme moi des livres basques"¹⁴. Inchauspek d'Abbadieren bidez bidaltzen zizkion liburuak eta berriak Bonaparteri: "Lorsque je vois M. Duvoisin et M. d'Abbadie je m'informe de vos nouvelles. Mais voilà bien deux mois que je n'ai vu ni l'un ni l'autre de ces messieurs. M. d'Abbadie est à Paris et M. Duvoisin à la campagne. J'ai vue ces jours derniers dans la Revista Euskara que vous aviez envoyé au comité la traduction anglaise d'une poésie de Arrese. Ça m'a fait grand plaisir parce que je vois par là que vous êtes en état de continuer vos travaux"¹⁵. 1859ko martxoaren inguruan Inchauspe eta Bonaparte ez ziren akordio batera heldu eta Inchauspek ez zuen itzulpen gehiago egin¹⁶. D'Abbadiek Archu zuberotarra aurkeztu zion Bonaparteri itzulpenak egiteko Inchausperen orde. Hala ere, Bonapartek jarraitu zuen zubererari buruzko eztabaiak galdetzen Inchauspe kalonjeari: "J'ai tardé un peu à vous envoyer les 12 francs que je vous dois et à répondre, pour vous remercier, à votre si aimable lettre du 25 Janvier, parce que je désire encore profiter des encouragements que vous me donnez de ne pas me gêner pour vous demander votre opinion en fait de souletin, malgré vos occupations..... Je pense que M. Archu n'emploie pas, du moins dans ses terminatifs, un souletin pur; car ils ne sont pas toujours ceux que nous avons recueillis ensemble en Soule, ni ceux que votre Verbe, ni ceux de Mlle Urrutz, employés dans la traduction de l'Evangile de Saint Jean et des trois lettres de Saint Pierre, ni ceux enfin, de Mrs. Abbadie et Chaho, C'est peine inutile, je pense, que de s'occuper de son style en général, mais l'essentiel, pour moi, c'est que les formes du nom et du verbe soient souletines, ainsi que l'usage correct (du singulier ou du pluriel), dans les terminatifs régis. Il restera toujours des mots, je le crains du moins, qui comme *orgina* ne sont pas en usage, mais quant à eux il faudra bien me résigner"¹⁷.

Jean Pierre Duvoisin, Ainhoako aduanetako kapitaina, Antoine d'Abbadiek printzeari aurkeztutako beste lankideetariko bat izan zen. Ikasle zela, Duvoisinek *Aventures de Télémaque* euskeratzen hasi zen, baina beharrezkoa ikusi zuen frantsesa-euskera hiztegi bat egitea. 1848ko otsailako Iraultza eta Estatuko kolpearen ostean baretasuna nagusitu zenean, Duvoisin Donibane Lohitzuneko zegoen aduanetako komandantziara bidali zuten. Bertan hiztegiaren lanari ekin zion. Garai honetan Agustin Chahok beste hiztegi bat osatzen hasi zen; elkar ezagutzen zuten, baina ez zuten heuren indarrak batu hiztegi bakarra osatzeko. Haristoyren esanetan: "leurs principes religieux, politiques et sociaux étaient trop opposé

14. D'Abbadiek Bonaparteri idatzitako eskutitza, 1856ko martxoaren 14an, "L'accueil de la Soule à Louis-Lucien Bonaparte", *Gure Herria*, 1957, 321-322 orr.

15. Inchauspek Bonaparteri bidalitako eskutitza, Baiona, 1881ko apirilaren 8an, *Euskera*, 1957, 249-250 or.

16. "Depuis le mois de mars 1859 une divergence irréductible s'était produite entre Inchauspe, ecclésiastique discipliné, et Bonaparte, éditeur... L'un ne voulait plus faire de traductions bibliques sans l'accompagnement de notes exégétiques, l'autre avait adopté cette attitude: 'Je suis donc décidé de ne plus entendre parler de notes, et j'espère qu'un jour ou l'autre je trouverai quelques Souletin qui voudra bien se charger de cette traduction (de la Bible) sans se mêler en rien de l'impression', Eskibel: "L'accueil de la Soule à Louis-Lucien Bonaparte", *Gure Herria*, 1857, 327. or.

17. L. L. Bonapartek Inchauspe kalonjeari bidalitako eskutitza, Londres, 1889ko otsailaren 8an, "Une lettre du Prince Bonaparte", *Gure Herria*, 1928, 425-427 orr.

pour que Duvoisin pût et voulût se rapprocher de lui; et Chaho de son côté, avait trop de vanité et de fierté pour tenter une démarche, dont il avait à craindre l'insuccès. C'est pendant qu'ils travaillaient chacun de leur côté à leur oeuvre"¹⁸. Duvoisinek ez zuen Chahorekin lan egin nahi, baina Chahok Duvoisinen lanaz baliatu nahi zuen. Chaho Antoine d'Abbadierengana¹⁹ joan zen Duvoisin konbetzi zezan Chahorekin lan egiteko. Ezin izan zuen d'Abbadiek Duvoisinen erabakia aldatu, baina une horretatik harreman oso estuak izan zituzten d'Abbadiek eta Duvoisinek²⁰. Euskeraren inguruan lanean jarraitzeko adoretu zuen d'Abbadiek Duvoisin, baita Bonaparte printzeari kapitainaz hitz egin ere. Bonaparte 1856an Donibane Lohitzunen egon zenean Duvoisin deitu zuen hotelera eta bertan egon zen hilabete osoa elkarrekin lan egiteko.

Lehenengo bidaian printzeak D'Abbadieri idatzi zion Baigorriako bidaia presta zezan; d'Abbadieren erantzuna: "Vayamos cuanto antes a Echaux, porque mi hermano Charles tiene que ausentarse de allí, y es él quien conoce a un habitante de Elizondo al que pediría que acuda a su casa"²¹.

Antoine eta Charles d'Abbadiek Bruno Echenique²² aurkeztu zioten Bonaparteri 1856aren abustuan, Baigorriko Echauh jauregian ospatzen zituzten biltzar literarioetan. Louis Luciano Bonapartek lankide begikoenetariko bat zuen Bruno Echenique: "Ne vous ennuyez pas je vous en supplie, car je ne trouverai jamais dans le Pays Basque une personne qui se pénètre aussi bien que vous du but que je me propose. Si vous m'abandonnez tout est fini; c'est pourquoi, au nom de la science, permettez moi de compter sur vous"²³. Bonaparte printzeak d'Abbadieren bidez bidaltzen zion opariren bat eta honengandik ere jasotzen zituen Echeniqueren berriak: "Je me suis permis il y a déjà longtemps de vous envoyer par le moyen de Mr. d'Abbadie un petit souvenir. J'espère qu'à l'heure qu'il est il vous sera parvenu franco de port. S'il n'en était pas ainsi veuillez bien m'en prévenir. Mons. d'Abbadie qui se trouve ici en Angleterre m'assure avoir remis le colis à votre correspondant en lui recommandant surtout d'éviter la contrebande, car le préfère payer les frais. C'est dans mes principes"²⁴; "Je viens d'apprendre par Mr. Abbadie que vous voulez bien vous charger de

18. Haristoy, P.: "Le capitaine Duvoisin et ses travaux", *Euskal-Herria*, 273 or.

19. 1836 urte inguruan Antoine D'Abbadiek Agustin Chaho ezagutu zuen. Biek batera *Etudes grammaticales sur la langue euskarienne* idatzi zuten.

20. Francisque-Michelek idatzitako eskutitz baten haxe esaten zion Duvoisini: "J'ignore quelles sont les poésies publiées par l'*Ariel*. Il est vrai que j'ai diné (?) (à l'âge de 20 ans) avec M. Chaho que j'ai connu à son foyer paternel et son journal a rappelé, m'a-t-on dit, notre vieille amitié. Mais par position, j'ai dû me tenir complètement séparé de lui, sans même recevoir son journal, qui ne comptait pas un seul abonné dans mon voisinage... Revenant à la poésie basque, je vous dirai que j'en ai fait un petit recueil prêté à M. A. d'Abbadie. M. A. d'Abbadie est actuellement à Londres. A son retour, je ferai un extrait que j'aurai le plaisir de vous envoyer", Francisque-Miguelek Duvoisini idatzitako eskutitza, Bordeaux, 1835ko maiatzaren 27an, "Lettres adressés au capitaine Duvoisin, *RIEV*, 1907, 52-53 orr.

21. D'Abbadiek Bonaparteri idatzitako eskutitza, "Vilallonga, J.: "Introducción a un estudio sobre Louis-Luciano Bonaparte y sustrabajos", *Eusko Jakintza*, 1953-1957, 56. or.

22. Bruno Echenique (1820-1893) Urdazubin jaio zen. Ehiztaria zen, eta egiten zituen ibilaldietan Baztan, Ultzama, Barranca, Irurtzun eta Altzasuako euskera arretaz entzuten zituen.

23. Louis Luciano Bonapartek Bruno Echenikeri bidalitako eskutitza, Londres, 1862ko maiatzaren 28an. Urquijo, Julio de: "Cartas escritas por el príncipe L. L. Bonaparte a algunos de sus colaboradores", *RIEV*, 1910, 233-297 orr.

24. Louis Luciano Bonapartek Bruno Echenikeri bidalitako eskutitza Londres, 1862ko urriaren 9an, op. cit.

la traduction du livre de Ruth en dialecte Haut-Navarrais espagnol du Baztan et plus particulièrement d'Elizondo.”²⁵.

Bergarako euskera lantzeko Juan Bautista Ruiz de Alegría ezagutu zuen Bonaparte printzeak, Bruno Echeniqueren bidez, lehengusuak baitziren²⁶. Ruiz de Alegría zela medio²⁷ Julian de Achotegi apezaren dotrina jaso zuen Bonapartek, Bergarako hizkeraz.

Claudio Otaegui bidez ere liburuak bidaltzen zizkion printzeak Echeniqueri. Otaegui 1863an hasi zen Bonaparterentzako katixima itzultzen, baina lehenagotik Nafarroako eta Lapurdiko lanak kontrolatzen zituen. Bonapartek Campioni idatzitako eskutitz baten bidez hauxe esaten zion Bonaparteri Otaegui buruz: “Je vois avec plaisir que vous êtes lié d'amitié avec l'excellent Otaegui que j'aime beaucoup, qui m'ayant aidé dans mes travaux, et qui se distingue beaucoup comme poète basque. C'est en très-grande partie à lui que je dois tout ce que je sais en fait de basque de Cegama, qu'il connaît dans la perfection”²⁸.

Lehenengo bidai horretan beste lankide batzuk lortu zituen Bonapartek. José Antonio de Uriartek Bizkaiko Diputaziorako testu ofizialen itzulpenak egiten zituen jadanik Louis Luciano Bonapartek 1956an ezagutu zuenean. Nahiz eta bizkaitarra izan eta bizkaierazko itzulpenak egin, gipuzkerara itzuli zuen Biblia. Eskuizkribuak Hondarribian bizi zen Otaegui bidez bidaltzen zizkion Bonaparteri eta Clemencia andreari²⁹, Bonaparteren emaztea eta laguntzailea zena. Otaegui bidez ere jasotzen zuen dirua Uriartek Bonaparterengandik, herriz herri ibiltzeko. Donostian zegoen kontsul frantziarra zela medio³⁰ ere eskuizkribuak bidali zizkion Uriartek Bonaparteri eta honek dirua Uriarteri.

Uriartek sarritan galdetzen zion Bonaparte printzeari Duvoisinek lapurterara egiten ari zen itzulpenaz: “Me parece buena la idea de que el capitán Duvoisin pase a ésa a traducir el Apocalipsis al dialecto labortano”³¹; “Supongo que Duvoisin irá adelantando la traducción

25. L. L. Bonapartek B. Echeniqueri bidalitako eskutitza 1861ko uztailaren 22an. Echeniqueri Londresetik bidalitako eskutitzak, Urquijo, Julio de: “Cartas escritas por el Príncipe L. L. Bonaparte a algunos de sus colaboradores”, *RIEV*, 1908, 215-221 orr.

26. L. L. Bonapartek B. Echeniqueri bidalitako eskutitza, Londres, 1863ko urtarrilaren 11ean. “Cartas escritas por el príncipe L. L. Bonaparte a algunos de sus colaboradores”, *RIEV*, 1910, 233-297 orr.

27. L. L. Bonapartek B. Echeniqueri bidalitako eskutitza, Londres, 1866ko abenduaren 15ean. op. cit.

28. Bonaparte printzeak Campioni bidalitako eskutitza, Londres, 1880ko abenduaren 31an, Lacombe, G.: “Lettres du Prince Bonaparte à Don Arturo Campión”, *RIEV*, 1932, 197. or.

29. Clemencia andreari buruz hauxe zioen Juan Ruiz de Larrinagak; “Unicamente de la carta 215, escrita por D. Claudio de Otaegui desde Fuenterrabia el 15 de Febrero de 1869, al día siguiente de su visita al P. Uriarte y dirigida a Madame Ricardo, cuñada de aquel (pues así la saluda, y como a tal la tutea) puede inferirse que era hermana de la Señora de este Otaegui, quien, aunque era maestro de Fuenterrabia, era natural de Cegama”, “Cartas del P. Uriarte al Príncipe Luis Luciano Bonaparte”, *RSVAP*, 1954, 231or.

30. “Remití a Don Juan Delmas, para que éste enviase al cónsul francés de San Sebastián, 5 pliegos enteros escritos que contenían los 10 capítulos y 23 versículos del XI del Evangelio de San Mateo traducido por mí al vascuence vizcaino”, Uriartek Bonaparte printzeari bidalitako eskutitza Markina, 1857ko urtarrilean “Cartas del P. Uriarte al Príncipe Luis Luciano Bonaparte”, *RSVAP*, 1954, 231-302 orr. Juan Delmasek zeukan argitaletxean inprimatzen ziren Uriarteren itzulpen batzuk; horrez gain, Delmasen bidez ere jasotzen zituen Uriartek liburuak eta eskutitzak: “Cuando le parezca que no será bueno que el P. Estarta (komentuaren nagusia) lea la carta, puede dirigirla a D. Juan Delmas, quién me la entregará por medio de sus parientes que tiene en Bermeo. Si S. A. me enviase algún libro bascongado impreso, desde el día 20 lo puede dirigir al referido D. Juan Delmas”, Uriartek Bonaparte printzeari bidalitako eskutitza Markina, 1860ko urtarrilaren 8an, op. cit.

31. Uriartek Bonaparte printzeari bidalitako eskutitza Markinatik, 1858ko azaroan “Cartas del P. Uriarte al Príncipe Luis Luciano Bonaparte”, *RSVAP*, 1954, 231-302 orr.

de la Biblia al labortano. A mí me acobarda esta empresa tanto por ser larga, como por ser difícil”³²; “Me alegro que el Sr. Duvoisin continúe sus traducciones tan adelantado”³³; “He leído con mucho gusto los proyectos del Capitán Duvoisin sobre la traducción de la Biblia”³⁴; “Tengo muchos deseos de saber en qué estado se hallan las traducciones de Duvoisin, para tratar de alcanzarle, aunque sea doblando mis tareas”³⁵. “Asco lan eguin du Duvoisin Jaunac: laere uste det, beste arazo guchi banu, irichico nioquela: baña nere damu aundiarequin, ecingo det”³⁶.

Cavagnariren bidez jakin zuen Uriartek 1958an Bonapartek itxaroten zuela Londresen: “Como S. A. el Príncipe me escribió que no tendría yo que pasar a Londres hasta mediados de Junio he estado ausente diez días. Siento mucho la indisposición de S. A., y me alegraré se restablezca cuanto antes. En vista de lo que me dice Ud. en su carta, principio hoy mismo a prepararme para salir con dirección a esa ciudad de Londres”³⁷. Londresetik itzultzean Inchauspe, Duvoision eta Lamagnère andrearekin egon zen Uriarte Bonapartek emandako opariak banatzeko eta albisteen berri emateko: “En Bayona, San Sebastian y Azpeitia tuve que detenerme algo por falta de asiento en las diligencias. Hice los regalos que S. A. me dió para el Abate Inchauspe y Duvoisin. En Bayona compré dos ejemplares de todos los libros bascongados que hallé, uno para mí y el otro para el Marqués de Valdespina. Madame Lamagnère se enteró muy por menudo de todo lo que hemos trabajado el canónigo (sic) Duvoisin. D. Antonio Aróstegui ha apreciado muchísimo su regalo, y tanto él como su hermana me mandan dé a S. A. las gracias y sus recuerdos”³⁸.

